

ENPRESA IDEIA SORTZEN

Gaur egun teknologiak garrantzia handia duenez eta egunak aurrera egin ahala gehiago garatzen denez, dirua aurrezteko metodo bat sortzea ideia ona izango litzateke. Ildo beretik, energia erabiltzen duten gailuak geroz eta ohikoagoak dira eta hauek garestiagoak izaten ari dira.



Ekarpenari dagokionez, gure puntu idartsuenak jendearekin komunikatzeko ahalmena, jendearen aurrean gure ideiak elarazteko erraztasuna eta arazo baten aurrean konponbideak ematea dira gehienbat. Bestalde, lehen esan bezala, gure proiektu honekin dirua eta energia aurrezteko aukera bat edukiko genuke. Ideia honekin, ekonomikoki gaizki dauden pertsoneri eta energia ordaindu ezin duten pertsoneri laguntza handia eman diezaiekegu.

GURE IDEAK:

- Hortzak garbitzeko makina automatikoa.
- Elektrodomestikoen ordutegia programatzeko aplikazioa.
- Kotxe bat plaka solarrekin, energia aurrezteko
- Patinete elektrikoa plaka solarrekin.
- Aire egokitua plaka solarrekin.

Hortzak garbitzeko makina automatikoa oso ideia ona iruditu zaigu, izan ere, momentu askotan erabili dezakezu, adibidez, etxean bazkaltzeko asmorik ez baduzu eta hortzak garbitu nahi badituzu, automatikoki eta lasaitasun guztiarekin erabili dezakezu. Bestalde, oraindik sortuta ez dagoen aparatu bat denez, arrakasta handia eduki dezake.

Elektrodomestikoen ordutegia programatzeko aplikazioa ere oso ideia ona iruditu zaigu. Honekin, energia asko aurreztu ahalko zenuke diruarekin batera, energia ordu merkeenetan etxeko makinak martxan jartzeko programatu dezakazulako; mobiletik ahalko zenuke zein momentutan piztu eta noiz itzali zure elektrodomestikoak. Horrela, ez duzu zure kabuz ordutegiak begiratzen egon beharko, aplikazioak automatikoki egin dezakelako.

Horrez gain, beste ideia bat plaka solarrak dituen kotxe bat sortzea da, honekin, ez zenuen gasolina erabili beharko eta energia plaka solarretatik lortuko zenuke, baina egia da, asko kostatuko litzaiokeela energia lortzen eta hori puntu negatibo bat izango zen. Gainera, plaka solarrak erosten eta kotxea haietara programatzen diru inbertsio handia izango litzateke, beraz ekonomikoki ere ez zaigu ideia ona iruditzen.

Laugarren ideia, aurretik aipatu dugun ideiarekin lotuta, patinete bat plaka solarrekin izango zen, horrela, ez zenuke zuk kargatu beharko etxeko energiarekin, eta plaka solarrek kargatuko zuten. Baina beste ideiarekin arazoekin bat egiten du, diru kantitate handia beharko litzateke.

Azkenik, proposatu dugun azkeneko ideia, azkeneko bi ideiekin lotura du. Aire egokituek plaka solarrekin funtzionatzeko programazioa da, horrela, etxean erabiltzen duzun energia kantitatea murriztuko zenuke, beraz dirua aurrezteko aukera bat izango zen. Hala eta guztiz ere, aire egokituek ondo funtzionatzea zila baldin bada, zailagoa izango zen plaka solarrekin ondo erabiltzea.



Idea hauek denak aztertuta, gure ustez onena eta arrakasta handiena izan lezakeena, elektrodomestikoen ordutegia programatzeko aplikazioa da, izan ere, gure etxeko elektrizitatearen kostua asko jeitsi genezake eta hori gure boltxikoek eskertuko lukete. Horrez gain, elektrizitate gutxiago ari garenez erabiltzen, kutsadura murriztuko genuke, denek horrela egingo bagenu, ingurumena gehiago babesteko aukera izango genuke. Gainera, elektrodomestikoak martxan jartzeko ardurak galduko zenuke, baita energiaren ordutegi merkeenak begiratzea ere. Hau dena esanda, gure aplikazioak ingurunean, ekonomian eta bakoitzaren ardurak lagundu ahalko luke.